



JOSE LUIS
ALVAREZ ENPARANTZA
TXILLARDEGI

SAIAKERA

3.
edizioa

ISBN: **978-84-18252-54-9**
ORRIALDEAK: **432**
FORMATUA: **12 x 19**
PREZIOA: **22,00 €**

LIBURUKO ESALDI BAT:

“Nik hautua egin nuen gaztetan herri zafratu eta iraindu honen alde. Eta liburu honetan ematen dudan lekukotasun mozorrogabea hautu horren beste froga bat da”.

«Txillardegiren pentsaeran argi dago euskara politikaren aurretik doala, baina ez gabe. Are: politikan sartzearen kausa ere euskara da».

Joan Mari Torrealdai
Txillardegi, testu hautatuak 01
(Jakin-EHU, 2019)

«Txillardegi bide erakusle, gai andana batean aitzindari eta garaiko Euskal Herrian egile, eragile eta aktore oso garrantzitsua izan zen».

Alaitz Aizpuru Joaristi
Berria, 2019

EUSKAL HERRIA HELBURU

Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegi*

2021
APIRILA

Lehen pertsonan idatzia, mundura gerraostean jaio zen belau-naldiko kide baten testigantza jasotzen du liburu honek; ez da, ordea, autobiografia bat. Memoria ariketa bat da, herriari eta hizkuntzari buruzko ideiak nola sortu eta mamitu zituen azaldu nahian.

Sei ataletan, Txillardegik toponimia, karlistadak, euskararen estandarizazio prozesua, Euskal Herriko ezker subiranista eta munduko ezker iraultzaileak ditu aztergai. Euskararen aldeko ekintzailera eta borroka politikoa elkarri lotuta ikusten zituen, eta, bere pentsamenduekin beti koherente, sarri jo behar izan zuen joera nagusien kontra, betiere euskarazko herriaren alde egiteko. Jarrera horiek ere ageri dira liburu honetan.

Lehenengoz 1994an argitaratu zenean, lekukotzak beharrezkoak zaizkigula genioen, bai berridazketa osoa gezurraren gainean eraikitzen ari direnen lotsarako, bai koldar isiltzen direnak agerian uzteko. Txillardegiren testuek ez dute gaurkotasunik galdu, ez eta haren herri gogoak ere askorengan: Euskal Herria pentsamendu eta bizi-akuilu, helburu.



JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA,
TXILLARDEGI

(1929 Donostia - 2012 Donostia)
XX. mendeko bigarren erdiko euskal idazle eta intelektual garrantzitsuenetariko bat. Ingeniaria eta hizkuntzalaria, erbestean 16 urtetik gora eman zituen eta hirutan egon zen kartzelan. ETA mugimenduaren sortzaileetako bat, eta euskara batuaren egile eta eragilea; hala, euskararen aldeko jardun nekaezina Euskal Herriaren eskubide nazionalen aldeko borrokarekin uztartu zuen beti. Politikari ezkertiar eta abertzalea, senataria izan zen bitan. Hamarnaka liburu eta ehunka artikulua argitaratu zituen. Nabarmenezkoak dira *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957), *Peru Leartzako* (1960), *Exkixu* (1988) eta *Labartzari agur* (2005) eleberriak eta *Huntaz eta hartaz* (1965), *Euskal gramatika* (1978), *Gertakarien lekuko* (1985), *Antigua* 1900 (1991) eta *Euskal Herria helburu* (Txalaparta, 1994). Gazteleraz *Euskal Herria en el horizonte*) saiakerak.

«Liburu osoan zehar, titulutik bertatik hasita, agerian gelditzen da Txillardegik Euskal Herriari buruz duen iritzi agonikoa, agonia hitzari Unamunok eman zion esangura emanez, hau da, borroka, helburu baten bila eginiko etengabeko hausnarketa eta ekimena».

M. Urkia. *Egin*, 1995



9 788418 252549

txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus